

# GEORGE EASTMAN

**Iñaki Azkune Mendia\***



**A**smatzaile estatubatuar hau, Waterville-n (New Yorken) jaio zen 1854. urteko uztailaren 12an.

Bere ikasketak, Rochester-ko (New Yorkeko) eskola publikoan egin zituen; ez baitzuen beste inora joateko dirurik.

Eastmanen garairarteko argazki-plakak kristalezkoak ziren eta hauei emulsio bat igurtzi behar zitzairen argazkia egin aurretik. Emulsioa ez zen kontserbatzen, eta horregatik, emulsioa argazkia egin behar zen lekuan eta unean prestatu behar zen. 1878. urtean, Eastmanek jelatina nahastu zion emulsio hari eta plakan igurtzi ondoren lehortzen utzi zuen gogor zedin. Nahaste hark denbora gehiago irauten zuen eta ez zegoen argazkia egin behar zen unean prestatu beharrik.

1880. urtean, Eastman Kodak enpresa sortu zuen. Enpresa hura, argazkilaritzarako eta zinematografiarako materialean, optikan erabiltzen diren tresnetan, mate-

ria plastikotan eta zenbait produktu kimiko organikotan espezializatu zen.


Ordurarte erabilitako kristalezko argazki-plakak astunak ziren eta maneiatzeko zailak. Horregatik, 1884. urtean Eastmanek kristalaren ordez papera erabiltzen zuen pelikula fotografikoa patentatu zuen. 1888an, pelikula-mota hura erabiltzen zuen Kodak kamera saltzen hasi zen.

1889. urtean, papera utzi eta beste material batez eginiko pelikula asmatu zuen. Material berri hura Hyatt-en zeluloidea zen. Plastikoa hark, emulsioa disolbatzen zuen.

Zeluloidearen eragozpena, sua erraz hartzea zen eta kantitate handiak pilatuta arriskutsu bilakatu zen. Denbora luzez aritu zen Eastman arazo hari irtenbidea aurkitu nahian, eta azkenik, 1924. urtean zeluloidea, suak hartzen zailagoa zen zelulosazko azetatoaz ordezkatu zuen.

Eastman negozio handiaren jabe zenez (gaur egun, Kodak produktuak mundu guztian zehar aurki ditzakegu) hobekuntza garran-

tzitsuak sartu zituen, nahiz eta garai hartan enpresan hobekuntzak sartzera derrigortuta egon ez. Hobekuntza horietako batzuk hauek ziren: gaixotasun-asegurua, jubilazioa eta bizitza-asegurua. Diru asko eman zuen ikaste-txeentzat, berak jaso ez zuen hezkuntza beste batzuk izan zezaten.

1932. urteko martxoaren 14an, bizitza luze eta zorionsua eduki ondoren, bakardadean eta hobekuntza berririk egiteko perspektibarik ezean, bere burua hil zuen Rochesterren (New Yorken). 

\* **ZETIAZ-Elhuyar**